



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2023-03-15 **Bilera zenbakia:** 32

Bilera ordua eta lekua: 18:30ean kulturgunean

Parte-hartzaileak: Rosario, Mari, Aitor G, Unai A., Monica, Iker eta Nerea

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azken batzordeko etxeko lanak.

- ✓ Zuhaitz eguna izena eman
 - ✓ Ekintzarik bada aipatu agendan sartzeko
 - ✓ Herrian egiten diren ekintzetan zaintza egon behar duen eta hizkuntza irizpideak zeintzuk izan behar diren partekatu.
- Lanen errepassoa egin dugu.

2. Ekintzen balorazio laburra

Ekintza hauen balorazio partekatu dugu:

Otsailak 15: Herri eguna antolatzeko bilera; Jende ugari bildu zen eta beste bilkurara baterako deia egin zen. Ekintzen zaparrada egin genuen eta iada batzuk zehaztu ziren.

Otsailak 16: Anbulatoria egoera; Martxoaren 23an bilera bat egingo da (16koa atzeratu da)

Otsailak 18: Zuhaitz eguna: Jende ugari eta ekintza polita izan zen.

Otsailak 24: Txotxongiloak: Haurrek asko gozatu zuten, aspaldi ez zela herrian txotxongilo emanaldirik egoten.

Otsailak 26: Mus txapelketa: Jende gutxik parte hartu zuen.

Martxoak 1: Eskola kirola hausnarketa: Lehen saioa ondo joan zen.

Martxoak 4: Emakume eguneko bazkaria Pantxika lamur bakarlarria. Giro aparta egon zen bai bazkarian baita geroko emanaldian ere.

Martxoak 8: Elkarretaratzea; Jubilatuek orduarekin gaizki ulertua izan zuten eta berandu joan ziren.

Martxoak 10: Oihalezko konpresak tailerra; Oso interesgarria izan zen, hurrengo urtean errepikatzek modukoa. Denboraz oso larri ibili ginen.

Martxoak 11: Harri adi ekintza: Ekitaldi oso jendetsu eta polita izan zen.

3. Hurrengo ekintzak herrian

Martxoak 17: Elbira dokumentala

Martxoak 18: Mendi irteera

Martxoak 22: Hitzaldia Mikel Aramendirekin

Martxoak 23: Anbulategiko batzarra

Martxoak 28: Zine klub

Martxoak 29: Eskola kiroleko 2. saioa

Apirilak 19: Estitxu poema liburu aurkezpena

Apirilak 24-28: Kirol astea

*** xake hasiko da, asteazkenetan, hamabostean behin

4. Besteak

- Elkarreketatik datorrena:

Jubilatuak: Podologo zerbitzuaren inguruko informazioa pantailetan jartzeko komentatu dute eta izen ematea udalean egiteko aukera zabaltzeko ere.

San Juan auzoan informazioa ez omen dute jasotzen komentatu dute. Ikerrek aipatu du gaia bideratua dagoela.

Arbelaitzek onartu du, garagardo azoka ekainaren 16-17an izango dela.

- Eskola berriaren egoera:

Aurrekontuetan kontuan ez izanak, proiektua erabat atzeratu behar du. Ea legebiltzarrean egindako harremanak fruituak ematen dituen.

- Aldizkariaren balorazioa:

Tenporalitatearen inguruan aritu gara, 4 hilero ateraz gero ez ote garen "atzean" gelditutako informazioa ematen ari. Hemeroteka bergogoratzeko ere balio duela eta ondo dagoela baloratu dute.

- Irakurzaletasun altzariak.

Aldizkariak berritu behar dira.

- Hurrengo batzordea **APIRILAK 17 astelehena -19:00**

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Unai eta Aitor sartu wasap taldean</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Podologo pantailak</i>	<i>Nerea</i>	<i>Batzorde ondoren</i>
<i>Hilabeteko agenda San Juanen jartzeko ere pasa</i>	<i>Nerea</i>	<i>Hilero</i>
<i>Aldizkariak aldatu</i>	<i>Nerea</i>	<i>Hilero</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: Apirilak 17, 19:00		